



## IV. MIKROANTZERKI MARATOIAREN DEIALDIA



## Donostiako Gazteriak, Kontadores Gazte Zentroaren bitartez, IV. Mikroantzerki Maratoia antolatu du ondorengo irizpide hauekin:

### Oinarriak

#### 1. Xedea

IV. Mikroantzerki Maratoiaren helburua da bultzatzea hemengo gazte izaerako zein formatu txikiko antzerki erdi-profesionala/amateurra. Aldi berean, Maratoiak parte hartzaile gazteak motibatu nahi ditu beraien sormen prozesuan aurrera egiteko, eta baita euren kultur ekoizpenaren hedapena bultzatzeko ere.

Bestalde, elkargune honek hiriko kultur eragileen arteko elkarlana sustatu nahi du.

#### 2. Parte hartzeko baldintzak

- Deialdian parte hartu ahal izango dute arte eszenikoekin zerikusian duten talde erdi-profesionalak/amateurrak, Euskal Autonomia Erkidegokoak zein estatu mailakoak. Lehentasuna 18 urtetik 30 urtera arteko tokiko taldeek izango dute. Hala ere, 18 urtetik beherako eta 30 urtetik gorako pertsonen parte hartzea onartua dago, kasu bakoitzaren balioztapena antolakuntzaren esku gelditzen delarik.

- Aurkeztutako proiektuak formatu mikroa izango dute, gehienez 15 minutukoak izan beharko dute.

- Aurkeztutako antzezlanak euskaraz zein gaztelaniaz izan daitezke. Dena dela, lehentasuna izango dute euskaraz aurkeztutakoek.

- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Partaideek bete beharko dute [www.kontadores.eus](http://www.kontadores.eus) webgunean ageri den izen-emate orria.
- Antzezlanaren zati bat erakusten duen bideoa edo/eta gidoia aurkeztea gomendatzen da.

#### 3. Proiektuak aurkezteko epea eta lekua

- Proiektuak aurkezteko epea 2019ko urriaren 1etik azaroaren 7a arte egongo da zabalik, bi data horiek barne harturik.

- Dokumentazioa [kontadores@donostia.eus](mailto:kontadores@donostia.eus) helbidera bidali behar da, on-line eran.

#### 4. Taldeak hautatzea

- Epaimahaia 3 pertonez osatuta egongo da, eta Kontadoresen irizpide eta interesak kontuan harturik hiru proiektu hautatuko ditu. Hautaturiko hiru proiektu horiek IV. Mikroantzerki Maratoian hartuko dute parte.

- Talde hautatuen berri emateko ebazpena 2019ko azaroaren 15ean emango da, eta Kontadoreseko ([www.kontadores.eus](http://www.kontadores.eus)) webgunean nahiz sare sozialetan argitaratuko da. Horrez gain, emaitza talde guztiei jakinaraziko zaie.

## 5. Hautatutako lanak

- Obra hautatuak 2019ko azaroaren 30ean antzeztuko dira, Kontadoresen, Donostiako IV. Mikroantzerki Maratoiaren testuinguruan.
- Aurkezpenaren epean bidalitako testua izango da antzeztuko den obra, eta ez dira aldaketak onartuko.
- Hautaturiko taldeek 350€-ko diru saria jasoko dute.
- Taldeek behar duten pertsonal teknikoa eta muntatze lanerakoa ekarriko dute.
- Hautaturiko obrek aukera izango dute Kontadoreseko ikus-entzunezko nahiz eszenarako materiala erabiltzeko.

## 6. Bestelakoak

Donostiako IV. Mikroantzerki Maratoian parte hartzeak oinarriak onartzea ekarriko du berekin. Antolatzaileek, beharren arabera, edozein aldaketa egiteko ahalmena daukate, baita deialdi honetan jasotzen ez den edozein gaiari buruzko erabakiak hartzeko ere, eta parte hartzaileek onartu egin beharko dituzte.

## 7. Publizitatea

Antolatzaileek emanaldien egitarau eta kartelak argitaratuko dituzte, eta hedabideetan zabalpena egingo dute, "Donostiako IV. Mikroantzerki Maratoia" programa osoa azalduz. Talde bakoitzak bere egitaraua edo publizitatea diseinatu nahi izanez gero, erakundeak emandako eredia erabili beharko du edota ondorengo informazioa adierazi beharko du, bai euskaraz, bai gaztelaniaz: *IV. Mikroantzerki Maratoia / IV Maratón de Microteatro*  
Logoak: Kontadores / Donostia Gazteria.

Donostian, 2019ko Urriaren 1ean